

Aldundiak Aiaraldeko eta Gorbeialdeko eskualdeen eta Gasteizen arteko autobus loturak hobetuko ditu

Zerbitzu zuzenagoak jarriko ditu Laudio eta Gasteiz artean

Murgia eta Izarrarako maiztasunak ere areagotuko ditu

Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a. - Abenduaren 26tik aurrera, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hobetu egingo ditu Aiaraldea eta Gorbeialdea Gasteizekin lotzen dituen foru garraioko 14 eta 15 lineen ibilbideak, ordutegiak eta maiztasunak. Helburua da zerbitzuen eskaintza egokitzea, ikasleek eta langileek aiseago erabil ditzaten.

Hortaz, datorren astearen erditik aurrera, 14 linean (Gasteiz/Murgia/Izarra) beste bi zerbitzu egongo dira ikasturtean zehar; Gasteiztik 11:15ean eta 13:00etan abiatuko dira autobusak, eta, Izarratik, 11:55ean eta 13:40an. Ikasturtetik kanpo ere izango dira zerbitzu horiek, eta Gasteiztik Izarrarako 09:05eko zerbitzuari eta Izarratik Gasteizerako 09:45eko zerbitzuari eutsiko zaie, orain arte ikasturtean bakarrik eskaini izan baitira.

Linea horretan, batez ere ordu tarte batzuetan, asko handitu da eskaria, eta hori betetzeko gehitu dira zerbitzuak. Zerbitzu gehitze horrek, halaber, aldaketa txikiak eragingo ditu goizeko eta eguerdiko sei bidaiaren ordutegietan.

15 linean (Gasteiz/Amurrio/Laudio) ere egingo dira hobekuntzak; hain zuzen, geldialdi gutxiago egingo dira bi zerbitzuek egunero egiten duten ibilbidean: gaur egun Gasteiztik eta Laudiotik 10:55ean eta 12:10ean irteten diren autobusak 10:50ean 11:45ean irtengo dira aurrerantzean, eta ez dira Izarrara eta Murgiara sartuko, orain arte bezala. Beraz, zuzenagoak izango dira, eta 20 minutu laburragoa bidaia.

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Bestalde, abenduaren 26tik aurrera, beste zerbitzu bat jarriko da abian Laudio eta Gasteiz artean, 18:30ean, eta kendu egingo da 22:40ko zerbitzua, erabiltzaile gutxi duelako.

Neurri horien helburua da zerbitzu eroso eta eraginkorra eskaintzea Aiaraldean bizi diren arabarrei, eta, bereziki, Gasteizen eskolak dituzten edo arratsaldeko txandan lan egiten duten Laudio eta Amurrioko ikasle eta langileei. Era berean, eta aurrekoan bezala, zerbitzu zuzenago horiek ezartzeak aldaketa txikiak eragingo ditu 15 lineako hamar bat zerbitzuren ordutegietan, lanegunetan zein jaiegunetan.

Azkenik, ordutegiak doitu dira Artziniega, Amurrio, Laudio eta Okondo lotzen dituen eskualdeko 16 linean, udalerrri horietako erabiltzaileek errazago izan dezaten 15 linea erabiliz Gasteizera joatea.

Zerbitzu eta ordutegi berriak ikus daitezke jada www.araba.eus/alavabus webgunean eta Android eta Apple gailu mugikorretarako Alavabus aplikazioaren bidez. Halaber, aldaketen berri eman zaie autobusak pasatzen diren udalerrietako erakundeei.

Arabako Foru Aldundiko teknikariek aldian behin azterlanak egiten dituzte foru garraio zerbitzua hobetzeko, eta lan horren ondorioz ezarriko ditu hobekuntza horiek Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak, bai eta erabiltzaileek zein toki erakundeek egindako proposamen eta iradokizunei erantzuna emateko ere. Eraitza, honako hau da: foru linea guztietan, bidaiarien kopuruak gora egin duela etengabe, azken hiru urteotan.